

## Hezkuntza eredu propioa eraiki asmoz

Ebaluazio sistemaz eta Hezkuntza eredu propioaz hitz egingo dute LABek martxoaren 2rako Manuel Lekuona Kultur Etxean antolatutako hitzaldian. / 5

**Bertso saio literarioa egin zen iragan larunbatean herriko Xirimiri Elkartean** / 2

**'Tipi-Tapa Korrika!' ikuskizun bikoitza eskainiko du herriko pailazo taldeak** / 3

**23 urtez azpiko kategorian debutatu du Iñigo Altuna txirrindulariak** / 10

**Ohorezko mailara igoera lortzeko borrokan ari da Babyauto Zarautz** / 11



## Udala eta Eusko Jaurlaritza uztartuz

Euskara sustatzeko zuzendaritza kargua hartu berri du Estitxu Alkortak / 8-9

TXINTXARRI

R.P.S. 17515 ILG

**VARILUX**<sup>®</sup>

Transitions Crizal Prevencia Crizal Sun UV

**ZURE 2.LENTE PROGRESIBOAK**

**OPARI\***

[www.multiopicasgipuzkoa.com](http://www.multiopicasgipuzkoa.com) f t e

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi aritu ziren kantuan eta Eider Rodriguez izan zen gai-jartzailea. TXINTXARRI

## Bertsoak eta literaturak bat egindako saioa

Hainbat herritarrek bertso eta literatur gau eder batez gozatu ahal izan zuten larunbat iluntzean Xirimiri elkartearen. Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio aritu ziren Irakurle txokoak antolatutako saioan, eta Eider Rodriguezek egin zituen gai-jartzaile lanak

### Iñigo Gonzalez

Irakurle Txokoko kideek hirugarrenez antolatu dute aurten bertso-afari literarioa. Aurreko bi edizioak bezala, arrakastatsua izan da hirugarrena ere: hainbat herritarrek bertso eta literatur gau eder batez gozatu zuten larunbat iluntzean Xirimiri elkartearen. Hori baino lehen, bapo afaldu zuten, menu goxoa dastatuz: hostopil barrubetea, legatza eta postrea.

Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio aritu ziren kantuan larunbatean; Eider Rodriguezek egin zituen gai-jartzaile lanak. Larunbat gaueko menuan orain arte aipatu ez dugun osagai bat ere presente egon zen uneoro: umorea. Ez bakarrik bertsolarien saioak irauin bitartean, baita aurkezpenaren ere: Pablo Barrio eta Miren Zalduek hartu zuten mikrofonoa, ekitaldiaren sarreratxoa egiteko. Barreak orduan hasi ziren Xirimirin, eta jada ez ziren geldituko gau osoan.

Labaka eta Alberdi bi euskal idazleren paperean jarri zituen Rodriguez gai-jartzaileak: lehenak oso idazkera jasoa zeukan, euskal hitz guztiak ezagutzen zituen, baina ez zeukan ezer interesgarririk kontatzeko; bigarrenak, berriz, alderantziz. Eta literaturaren etorkizuneko bi harribitxi horiek Lujanbio editoreak deskubritu zituen, baina, funtsean, idazle frustratua zen bera. Rol horien inguruan bertso eta ateraldi bikainak egin zituzten hiruek, ikus-entzuleen gozamenerako. Eider Rodriguezek egin zituen gai-jartzaileak egoera bakoitza ere zehaztasunez eta umorez azaleratu zuen, eta hori ere eskertu zuten Xirimirira

**BERTSO ETA LITERATUR GAU EDERRAZ GOZATU AHAL IZAN ZUTEN XIRIMIRI ELKARTERA GERTURATU ZIRENEK**

bertaratutakoek. Ordu eta erdi inguruz ederki gozatu zuten guztiek, eta etenik gabekoak izan ziren barre-algarak eta txalo zaparradak.

### Ohiko saioa

Irakurle Txokoko kideak asteartean elkartu ziren, otsaileko saioa egiteko, Ttakunenea elkartearen. Saio horretan, Angela Davis idazle estatubatuarren 'Emakumeak, arraza eta klasea' liburuari buruz hitz egin zuten.

### Herriarteko saioa

Bestalde, Lasarte-Oriako Earra! bertso eskolako kide Ane Labaka, Unai Muñoa eta Asier Azpiroz Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako bigarren saioan aritu ziren ostiral gauean Urretxu-Zumarragan, bertako Simimimisol eskolarekin batera, Gaztelekuan. Oreatua izan zen oso bi taldeek egindako jarduna, baina azkenean etxeko taldekoek poltsikoratu zuten garaipena, 13-11.



EH Bilduko zinegotziek lankidetzeta-hitzarmena baloratu zuten unean. TXINTXARRI

## Beterri-Buruntzako lankidetzeta hitzarmenarekin pozik EH Bildu

Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak urtarrilaren 27an sinatu zuten hitzarmena baloratu zuten iragan astean

### Maddi Noriega

Lasarte-Oriako, Usurbilgo, Hernaniko, Andoaingo, Urrietako eta Astigarragako udalek, lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten iragan urtarrilaren 27an. Horrela, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorretan eskualdean abian dauden programak eta zerbitzuak modu bateratuan eskaintzeko asmoz sinatu zuten hitzarmena; "Beterri-Buruntza eskualdea osatzen dugun sei udalek lankidetzeta-hitzarmena sinatu dugu, eta horren helburu nagusia eskualdearen garapen ekonomikoa zein soziala sustatzea da".

Beterri-Buruntza eskualdeko EH Bilduko ordezkariak lankidetzeta-hitzarmenak eskualdeko ekintzaileei, enpresei zein herritarrei "onura handiak" ekarriko dizkiela uste dute. EH Bilduk urteak daramatza eskualdea osatzen duten udalen arteko elkarlana sustatu nahian, eta "tresna oso garrantzitsua" dela sinetsita daude. "Joan den legegintzaldian hasi ginen udalen arteko lankidetzeta hori egituratzeko aukerak aztertzen eta lantzen. Adierazi moduan, "lehentasunezko gaia" izan da, eta indar handia jarri dute eskualdea osatzen duten udalen arteko elkarlana bultzatzen eta marko juridiko bar sortzen. "Gure eskualdean garapenak ekonomia eraldatzailearen printzipioetan oinarrituta egin behar duela oso garbi daukagu", gaineratu zuten.

### Ekonomia sozial eraldatzailea.

Lankidetzeta-hitzarmen horren bitartez, ez dute edonolako garapena sustatu nahi, ekonomia sozial solidario eta eraldatzailearen printzipioen arabera garapena sustatu nahi dute eskualdean. Horretarako Tokiko garapen ekonomikoa eta soziala kooperatibismoan, jasangarritasunean eta partehartzean oinarritua egon behar duela uste dute; "gure eskualdea bidezkoagoa, iraunkorragoa eta parekideagoa lortzeko tresna izan dadin".

### Erronka

Beterri-Buruntzaldea eskualdean lan bila dauden pertsonen, formakuntza nahi dutenei, ekintzaileei, enpresei eta oro har eskualdeko herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena ematea da hitzarmenarekin bat hartu duten erronka. "Udal bakoitzak ditugun baliabideak elkartu, antolatu eta toki garapena, sustapen ekonomikoa eta enpleguaren alorretan eskaintza bateratua eta koordinatua eskaintzea da gure helburua".

Beraz, hitzarmen hau, lehen urrats bat besterik ez da izan. Etorkizunean garapen agentzia edo eskualdeko izaera duen entitate bat eratzeke lanean jarraituko dutela gaineratu zuten eskualdeko EH Bilduko bost hautetsiek: Pablo Barriok, Luis Intxauspek, Ana Carrerek, Andoni Gartziak eta Alaitz Aizpuruak.



KATXIPORRETA

# Tipi-Tapa Korrika! emanaldi bikoitza herrian

Lasarte-Oriako Irakurleen Txokoak laugarren ikasturtea du aurtengoa eta azken hiruhilekorako hainbat ekintza antolatu ditu; horien artean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Tipi-Tapa Korrika! ikuskizunaren emanaldi bikoitza

## Maddi Noriega

Laugarren ikasturtea betetzear du Lasarte-Oriako Irakurleen Txokoak. Azken hiruhilekoan murgildu dira dagoeneko, eta ikasturteari behar bezalako amaiera eman asmoz, hainbat ekintza antolatu dituzte.

Apirilaren 8an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Tipi-Tapa ikuskizun bikoitzaz gozatzeko aukera izango da Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Irakurle Txokoak antolatzen dituen ekimen guztiak finantzatzeko, diru iturri propioak landu behar izaten ditu. Diru iturri horiek lortze bidean, Lasarte-Oriako pailazo taldearen eskaintza bat jaso zuen taldeak. "Guk, noski, onartu egin genuen eskaintza hori, eta oso eskertuak gaude eman diguten aukeragatik", azaldu dute taldeko kideek igorritako idatzi baten bitartez.

Emanaldia, beraz, apirilaren 8an izango da herriko kultur etxeko areto nagusian, eta bi

emanaldi izango dira egun berean; arratsaldeko 16:30ean izango da lehena, eta 19:00etan, berriz, bigarrena.

Horiek ikustera sartu ahal izateko, ordea, alde aurretik sarrerak eskuratzea beharrezkoa izango da, eta antolatzaileek jakitera eman dutenez, Jalgi Kafe Antzokian eta Artizar tabernan erosi ahal izango dira, 7 euroren truke.

## Tipi-Tapa Korrika! ikuskizuna

Emanaldi alaiaz gozatu ahal izango dute apirileko bi saioetara gerturatzen diren etxeko txikiek. Basoari urtero iristen zaio

**PIRRITX, PORROTX  
ETA MARIMOTOTSEK  
APIRILAREN 8AN,  
MANUEL LEKUONA  
KULTUR ETXEAN  
EMANALDI BIKOITZA  
ESKAINIKO DUTE**

udaberria; kukuak esnatzen dira eta elurrak urtzen dira eta landareak loratzen direnean. Euskarari, osterara, bi urterik behin, Korrika iristen zaio.

Ekimen horretan, kilometro bakoitzeko, lekukoa pasatzen da, eskurik-esku, maitasunez. Lekuko hori, ordea, airean dabil, lurrik ukitu gabe, mezu sekretu bat gorde duela eta sudur-gorriek, Lasarte-Oriako jaialdian zabalduko dute; "eman, hartu, jaso, pasa... aurrera... Badaramagu euskara etorkizunera!".

## Sarreraren zozketa

Apirilaren 8an Manuel Lekuona Kultur Etxean pailazoen eskainiko dituzten emanaldietara joateko, bi sarrera bikoitz zozketatuko ditu TXINTXARRI-k.

Zozketa horretan parte hartu ahal izateko, [txintxarri.eus](http://txintxarri.eus) atarian sartu beharko dute interesatuek, eta ikuskizunaren banerrearren klik eginda agertuko den formularioa bete beharko dute.

## NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

## Pailazoak

Aita izateak sortu didan sentimendu baten harira datoz gaurko hitzak. Sentimendu nostalgiko xamarra, kronologikoki oso antolatua, denboran etapaka kokatua eta haurtzaroan oinarritzen dena. Bakoitzaren oroitzapenen eta sentimenduen mundua oso desberdina eta aberatsa da. Herriko pailazoen doinu eta abestien letrekin zure bizitzako ehunka momentu gogoberritzea, oso aberasgarria; zin dagizuet. Horri, semearen irribarrea gehituz gero, hortxe eguneroko une magikoetako bat.

Irrien lagunak, ilusioen lagunak, euskararen lagunak eta bereziki haur guztien lagunak. Guztienak diodanean heldu garen haurronak ere esan nahi dut. 90.hamarkadan Zabaleta auzoan, oihal zati bat atzean zutela hasi ziren pailazo haiek poza eta alaitasuna banatzen; Takolo, Pirritx eta Porrotx ziren garai hartan.

Egunero berritzen ditut haur garai haiek, semearekin euren diskak entzuten ditudan bakoitzean. Poz asko, ilusio asko eta bereziki irribar asko berritzen ditut ene buruan.

Semeak, nabari du aitatxo eta amatxok oso gustuko dituztela. Zabaletako pailazo haiek, Lasarte-Oriako pailazo bihurtu ziren gerora eta gaur egun Euskal Herri osoan banatzen dituzte muxuak Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. Zabaletako lehen emanaldi haiek ikusten genituenok, pozik ikusten ditugu gaur egun ere. Ezin ahaztu, duela 30 urte inguru Okendo plazan dultzaina, bonboa eta txindata hartuta egiten zituzten sarrera kitzikagarriak, edota "aspirinarekin" bukatzen ziren saio dibertigarriak. Nire oroitzapenen bilduman erroturik geratu dira hainbat momentu bereziki loturiko abestiok. Memoria, askotan ekintzetan eta sentimenduetan oinarritzen da eta nire kasuan abesti simple batek, letra simple batek, oroitzapen asko ekartzen dizkit. Landaberri ikastolako jaialdi hartan binilozko diska hura erosi nuenetik, urte asko iragan diren arren, aurtengoan Korrikarako sorturiko diska berria erosi eta gozaten gabiltza etxean. Askotan memoriak ez duelako gehiagorik behar. Gozamenerako sentimenduak sorrarazten dituzten uneak, une bereziak, une hauek sortuko dituzten pertsonak eta abestiak besterik ez.

Bihotz bihotzez eskerrak Takolo, Pirritx, Pirritx, Porrotx eta Marimotots.



TXINTXARRI

## Musika eskolako doinuak

Lasarte-Oriako Musika Eskolako haur eta gazteek kontzertu atsegina eskaini zuten asteazken iluntzean, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Askotariko artisten doinu ezagunak entzun ahal izan ziren; Imanol Urbietaren eta Beatles taldearen doinuak, besteak beste. Musikariekin batera, Kukuka Dantza Taldeko kideek ere dantza emanaldi atsegina eskaini zuten.

# Inauteriek asteburuan jarraituko dute herrian

Euskal Inauteriak igaro dira, baina herrian ez da amaitu festa. Aste honetan zehar egingo diren aurrekariekin berotu, eta asteburuan berriro lehertuko da festa, 2017ko Inauterien eskutik. Udalak, hainbat eragilerekin elkarlanean, egitarau erakargarria prestatu du

## Iñigo Gonzalez

Euskal Inauteriek ekarri zuten festa herrira pasa den asteburuan, baina oraindik ez da bukatu, aste honetan zehar ere hainbat ekintza daudelako aurreikusita 2017ko Inauteriak ospatzeko. Udalak egitarau zabala prestatu du, hainbat eragilerekin elkarlanean.

Asteburuan lehertuko da festa berriro ere, baina hori baino lehen egingo dira zenbait ekintza, aurrekari gisara. Esaterako, asteazkenean kontzertu bufoa eskaini zuten Udal Musika Eskolako ikasleek kultur etxean. Gaurko eta atzoko doinuak interpretatu zituzten. Gaur, berriz, herriko ikastetxeetako haurrek Inauteriak ospatuko dituzte, urtero legez, Lasarte-Orian.

## Etenik ez asteburuan

Bihar, larunbata, lehertuko da festa Lasarte-Orian. Konpartsak eguerdiko hamabietan elkartuko



Herriko hainbat elkartek hartuko dute parte larunbateko desfilean TXINTXARRI

dira Okendo plazan. Ordu erdi beranduago aurkeztuko dira parte-hartzaile guztiak. 14:00etan, berriz, konpartsen arteko lehiaketa hasiko da. Eta, goizean zehar erabilitako indarrak berreskuratzeke, 14:30etako

herri bazkarian elkartuko dira herritar ugari.

Arratsaldeko egitaraua ere ekintzaz beteta dago: 16:00tan Super Bingoan hartuko dute parte herriko gaztetxoek. Ordu bete beranduago hasiko

da karrozen desfilea Okendo plazatik: Zabaleta, Emakumeen Zentro Zibikoa, Naste Borraste, Larramendizales, Jalgune, Ttakun, Intzak Parrandan, Elkar, Sasoeta Sasoian eta Erketzek hartuko dute parte horretan. Okendotik hasiko dira desfilatzen, esan bezala, eta honako ibilbidea egingo dute gero: Kale Nagusia, Ola Kalea, Zumaburu, Kale Nagusia berriro, Hipodromo Etorbidea, Pablo Mutiozabal eta Iñigo de Loiola, Okendora itzuliko dira, berriz ere, ekitaldia bukatu aurretik. Arratsaldean zehar herrian zehar ibili eta gero, 20:00etan txokolate goxo dastatzeko aukera izango dute inauterietako parte-hartzaileek.

Parranderoenek gauean zehar luzatu ahalko dute festa, 23:00etan hasiko den Disko Jaian. Okendo plazan egingo da.

Igandean ere edukiko dute zer egin herritarrek. 12:00etan hasiko da poteoa, Oaintxe in deu! txarangak girotuta. Arratsaldean, berriz, ekitaldi pare bat izango dira: 16:30ean mozorroen lehiaketa herrikoia eta banakakoa hasiko dira, eta festa-asteburua ixteko, 'Rockalean' emanaldiaz gozatuko dute lasarteoriatarrek Okendon.

## 25.470 euroko aurrekontua

Udalak jakinarazi du 25.470 euro bideratu direla aurtengo Inauteriak antolatzeke. Horietatik 12.000 konpartsentzat

izango dira: kopuru hori jaso dute mozorroak eta karrozak prestatzeko. Beste 9.872 euro jarduerak eta azpiegiturak prestatzeko erabili ditu Udalak. Azkenik, Euskal Inauterien antolatzaileek 3.598 euro jaso dituzte.

## Festa koloretsua

Asteburu honetarako herritarrek aukeratuak izango dituzte, honezkerok, mozorroak; pailazo sudur gorriak, margotutako aurpegiak, jantzi koloretsuek tartea izango dute larunbat eta igandean, Lasarte-Orian. Horiek guztiak kolorea emango diote inauteri asteburuari.

Honekin batera, herriko hainbat bizilagunek ere koloretako zapiak zintzilikatu ohi dituzte etxeko balkoietan, inauteri festak iraun bitartean.

**UDALAK INAUTERI EGITARAU ZABALA PRESTATU DU HERRIKO HAINBAT ERAGILEREKIN ELKARLANEAN. ASTEBURUAN LEHERTUKO DA FESTA BERRIRO, ETA EKINTZA UGARI IZANGO DIRA**

## Udal aldizkariaren zenbaki berria aurkeztu dute

2016. urtean aurrera eramandako jarduerak biltzen ditu aste honetan aurkeztutako Lasarte-Oria Lantzen aldizkariak

## Martin Vicioso

Alkate Jesus Zaballosek astelehenean azaldu zuenaren arabera, Lasarte-Oria Lantzen aldizkariak "gardentasunaren erakusgarri" izan nahi du. 2016an Udalak egindako kontratazio eta lizitazio guztiak biltzen ditu, atalka. Etxez etxe 8.000 ale banatuko dituzte bihurtik aurrera, eta 4.822 euroko kostua izan du aldizkariaren 12. zenbaki honek.

Aldizkari "aseptikoa" dela nabarmendu zuen Zaballosek, "inongo kutsu politikorik ez duena". Informazioa "bere



Udal aldizkaria. LASARTE-ORIAKO UDALA

horretan" islatu dute, alkatearen ustez, aurrekontuak eta esleipenak zehaztuz.

Udal sail bakoitzak azken urtean egindako lana eta bultzatutako ekintzek edukitako kostua "mahaigaineratzea" da helburu nagusia, Zaballosek adierazi duenez. Besteak beste, urtean zehar egindako asfaltatze lanak, eta hirigintza eta ingurugiro arloan egindako inbertsioak nabarmendu ditu.

Gardentasunari eskainitako aurreko zenbakia pasa den urteko otsailean argitaratu zuten. Hala ere, hemendik aurrera, aldizkaria sei hilabetero banatzeko asmoa dute, Jesus Zaballosek aurreratutakoaren arabera. Izan ere, urte osoan egindako ekintza guztiak ale bakarrean biltzean, informazio gehiegi kondentsatzen da, Udal ordezkariaren ustez.



LANDABERRI-GARAIKOETXEA IKASTETXEA

## Erraustegiarekin kezkatuta

Donostian agerraldia egin zuen Landaberri-Garaiokoetxea ikastetxeko irakasle talde batek, ostiralean. Zubietan eraiki nahi duten errauste plantaren egitasmoarekin "oso kezkatuta" daudela adieraziz, Gema Gonzalez de Txabarri Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Hezkuntza ordezkariari "erantzun argi bat" emateko eskatu zioten.

# "Gure hezkuntza eredua eraiki behar dugu"

**BEÑAT IRIONDO ETA MAIDER IZAGIRRE LAB HEZKUNTZA**

Martxoaren 2an Manuel Lekuona Kultur Etxean hitzaldi irekia egingo da, 17:30ean ebaluazio sistemaz eta Hezkuntza ereduz hitz egiteko

## Maider Azurmendi

Beñat Iriondo eta Maider Izagirrek martxoaren 2an egingo den hitzaldi irekian parte hartzera deitzen dituzte herritarrek. Honakoa Manuel Lekuonan izango da 17:30ean eta hezkuntza alorreko ebaluazioaz hitz egingo da LAB sindikatuak martxan jarri duen dinamikaren baitan.

Gipuzkoako deialdia izanik ez dute hezkuntza esparruko langile edota gurasoak soilik gerturatzea nahi "hezkuntza gure gizartearen oinarria da eta guztioi dagokigu honetan aldaketak bultzatzea".

Izagirrek azaldu duenez, ebaluazio sistemaren inguruko lanketaren abiapuntua da 2016ko maiatzan LAB-eko irakaskuntza sektoreak aurkeztutako 'Iruuten' dinamika. "Hezkuntza mailan jasaten diren inposaketaz haratago, Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema propiorantz urratsak ematen hastea da helburua".

Horretarako jarri da dinamika bat martxan, "herri ikuspegitik ariketa praktikoko batzuk gauzatzea ezinbestekoa da. Ariketa hauetan hezkuntza komunitate osoak eta herritarrek parte hartzea nahi dugu".

Euskal hezkuntzak bete behar dituen helburuen inguruan



Bi irakasleak LAB-en prozesuaren lanketan daude murgilduta. TXINTXARRI

gogoeta egin nahi dela azaltzen dute LABeko ordezkariak, "irakaskuntza arloko jendearen artean esperientziak ezagutu eta trukatu eta etorkizunari begira, Euskal Herriak behar duen eskola eredua inguruan adostasunak bilatzea da xedea". Hezkuntza sistema propioaren bidean, tresnak sortu behar direla uste dute eta horien baitan txertatzen da ebaluazioaren inguruko lanketa hau.

Izan ere, lehenengo urrats bezala gaiak adostasun maila

altua lor dezakeela uste dute "irakaskuntzako eragile guztien akordio zabal bat lortu nahi da ebaluazioaren inguruan, eta dekalogo bat sortu lehenengo pausu bezala".

## Notak

Egungo ebaluazio sistema kalifikazioetara lotuta dagoela azaltzen dute. "Egun jartzen diren kalifikazioak neurri handi batean irakaslearen eskutan geratzen dira. Irakasleak erabakitzen du zein nota jarri

ikasle bakoitzari, eta ikastetxe askotan ere, ez daude ebaluazio irizpideak bateratuta. Hor hutsune eta gabezia handia geratzen da agerian. Izan ere, zer ebaluatu behar zaio ikasleari? azterketa, jarrera, lana?". LABeko kideen ustez, "paradigma aldaketa beharrezkoa da. Ebaluazioak prozesu positiboa behar du izan alde guztientzat, integrala eta poliedrikoa. Agerian utzi behar luke indartu beharrezkoa, hobetu beharrezkoa... beti ere, ikuspegi eraikitzaile batetik eta ez zigorretik edota urduritasunetik".

'Pisa' txostenak argitara eman dituen emaitzak medio, aldaketak egingo direla iragarri du Hezkuntza sailak. "Hausnarketa batera eraman gaitu eta eredua kolokan dagoela erakutsi du". Hala ere, txosten horren inguruan 'zalantzak' badaude, "erraz ulertzeko, Hezkuntzaren kontrol osoa Estatuak nahiko balu, egun baditu tresnak hezkuntza legeen bitartez eskuratzeko. Hau da, gaitasuna du esateko zer irakatsi eta nola. Kontrolatzeko, errebalidatzen izango litzuzke edota 'Pisa' txostena bera. Izan ere, honek gauza konkretu batzuk ebaluatzen ditu modu zehatz batean, helburu jakin batzuk lortzeko. Gure ustez gure herriak honen aurrean esan behar du: guk badaukagu nork ebaluatu eta nola ebaluatu. Momentu honetan, 'biluzik' gaude estatutik datozenen aurrean. Tresnak behar ditugu. Pisa behar al du herri honek? Herri bezala erabaki behar genuke, izan ere, herri askok erabaki dute 'Pisan' ez parte hartzea".

Hau alde batera utzita, hezkuntza momentu historiko batean dagoela uste dute.

"Aldaketa bat behar da eta hori ez du inork ukatzen, aldaketa egokia eta eraginkorra izateko, herritik eta herriarekin egin behar da, bestela, legearen bidez inposatzen jarraitzen bada, irakasleek ez dute egiten duten lanean sinistuko, besteak beste".

Hezkuntza komunitatean badira desadostasunak, Iriondok eta Izagirrek azpimarratu dutenez, "elkargune izan daitekeen galetako bat da ebaluazioa. Eragile ezberdinak lanean ari dira esparru honetan".

## Prozesua

Ebaluazio hezigarriaren ideian gogoeta abiatzeko lehenengo urratsa osteguneko hitzaldia izango da. Ondoren, Hernanin, Orona eraikinean martxoaren 18an antolatu diren jardunaldietan, adituek ebaluazioaren inguruan arituko dira eta kasu praktikoko batzuk azalduko dituzte, beste ebaluazio modu batzuk posible direla, eta horiek martxan daudela, erakusteko.

Tarte honetan ikastetxeetara joko dute. "Asmoa zein den azalduta, formazio saioak jaso nahi dituzten ikusi eta eztabaidatan parte hartzeko prestutasuna jasoko dugu". Ikastetxeen plangintzara egokituz prozesua martxan jarriko da. "Ahalik eta esperientzia gehien jaso nahi ditugu".

Prozesuaren lehen urratsak izanik, ikusteko dago zein bide egiten duen. "Datorren ikasturtean zabaltea espero dugu eta tartean beste jardunaldi batzuk ere antolatuko ditugu gai sakontzeko".

Nafarroan lanketa hasi da, eta itxaropentsu eta baikor daude, "besoak zabalik" hartu baitituzte eskoletan. "Irakasleen artean bada beharra zerbait egiteko goera behingoz iraultzeko".

## Aterpea elkartera bazkide berriak erakartzeko kanpaina

Astearte eguerdian aurkeztu zuten Aterpea merkatarien elkartera bazkide berriak erakartzeko kanpaina, Udalean

### Maddi Noriega

2017. urteko Udalaren helburuetako bat, merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako establezimenduen artean asoziazismoa sustatzea izango dela adierazi zuten astearteko prentsaurrekoan.

Herriko ekonomiaren bultzada, era intentsuagoan eta eraginkorragoan egin daitekeela konbentziturik daude, bai Udala eta baita Aterpea elkarteak ere.

Udalak asoziazismoari emandako emandako sostengu hori batik bat Aterpea elkartearen

zentratu da, hori baita Lasarte-Orian dagoen merkataritzako eta ostalaritzako elkarte bakarra; gaur egun, herriko establezimenduen %10a biltzen ditu.

Aterpeako lehendakari Ormazabalek azaldu moduan, bazkide berriak biltzeko kanpaina martxoaren lehenengo jarriko dute martxan. Horrela, Arantza Aldai arduratuko da herriko denda, taberna eta komertzioetara gerturatu eta horiei guztiei Aterpeako kide izatera gonbidatzeaz.



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**  
BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

# FESTA KOLORETSUA

## EUSKAL INAUTERIAK OSPATU DIRA HERRIAN



Herriko hainbat eragileekin batera Lasarte-Oriako kaleak alaitu zituzten iragan larunbatean. TXINTXARRI



Alkateak Lasarte-Orian sartzeko gonbita egin zien Zubietatik zetozen kideei. TXINTXARRI



Zubietatik iritsitako Txantxoek senidetze dantza egin zuten Lasarte-Oriako kideekin batera. TXINTXARRI



Askotariko dantzak eskaini zituzten Txantxoek mozorrotutako herritarrek. TXINTXARRI



Erromeri saio animatuaz gozatu ahal izan zuten herritarrek, Okendo plazan. TXINTXARRI

Aurreko urteetan ez bezala, bukatu ez, hasi egin da festa Euskal Inauterien eskutik. Pasa den larunbatean ospatu ziren herrian, Ttakun KEk eta herriko hainbat eragilek elkarlanean prestatutako egitarauarekin. Goizean, Xumela abesbatza eta Ttiriki-Ttarrakako kideak kantuan eta dantzan aritu ziren 'puska' eske, herriko hainbat elkartetan barrena. Primeran pasa zuten guztiek, eta sabelak betetzeko aukera ere izan zuten.

Arratsaldean lasarteoriatarrek eta zubietarrak senidetu egin ziren Hipodromoko zubian. Hori baino lehen, kalejira koloretsua abiatu zen Zubietako plazatik gure herrirantz. Eta, zubira iristean, esan bezala, senidetu egin ziren: lasarteoriatarrek hainbat jaki eta edariz betetako kutxa eman zien zubietarrei. Trukean, Kaxkamalo jaso zuten herritarrek, geroxeago Okendo plazako sutara bota eta gauza txar guztiak uxarazteko horrela. Behin senidetzea eginda, Lasarte-Oriako auzoetan barrena aritu ziren dantzan.

Okendo plazara iristean, erromerian dantza egitera animatu ziren hainbat pertsona. Hori eta gero, Kaxkamalo sutara botatzeko ordua iritsi zen. Beste urteetan ez bezala, hartzak lortu egin zuen garretatik libratzea. Kaxkamalok, ordea, ez. Hori erreta, gure herriatik uxatu egin zituzten gauza txar guztiak. Joan ez dena festa-giroa izan da: asteburu honetan jarraituko du eta.



Herriko gaitzak desagerarazteko aitzakiarekin, Kaxkamalo erre zuten festa egunaren amaieran. TXINTXARRI

**Maid**er Azurmendi

Estitxu Alkorta herriko EAJko zinegotziak hartu berri du Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritza. 2007tik 2011ra Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria izan zen eta garaiko "esperientzia onak" bultzatuta hartu du erronka berria.

Nerabeak eta eremu digitala dira saileko lehentasunak hizkuntzaren alorrean eragiteko. Euskal hedabidei zein euskalgintzako eragileei bideratutako diru laguntza lerroez hitz egin du Alkortak. **Nola hartu duzu Euskara Sustatzeko Zuzendari izendapena?**

Ilusioarekin hartu dut berriro. Ez nuen eskaintza une honetan iristea espero, Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak, Miren Dobaranek, esan zidanean pozik hartu nuen eskaintza eta asko pentsatu ondoren, baiezkoa eman nion.

Orain dela zazpi urte Gipuzkoako Foru Aldundian egon nintzen eta, Euskara Zuzendari lanetan, oso esperientzia positiboa izan nuen. Miren eta orokorrean lan taldea osatzen duten lagunak ezagutzen nituen ordutik eta horrek eman zidan azken bultzada.

**Uztartuko duzu zinegotzi lanarekin?** Uste dut herriarekiko ardura bat daukadala. Lau urterako aukeratu ninduten herritarrek, ni izan nintzelako nire alderdiko zerrenda burua, eta hori bete behar dudala iruditzen zait. Bozeramaile lanak egiten jarraituko dut eta bueno, Jon Antxordokirekin batera Udaleko eguneroko lanak eramango ditut.

Argi dago, batez ere egunerokoa Jones egingo duela baina asteen hainbatetan elkartu eta erabakiak adostuko ditugu. Horretaz gain, Udalbatzar eta batzordeetara etorriko naiz. **Talde berritua osatu da Miren Dobaranen gidaritzapean. Zeintzuk dira finkatu dituzuen helburu edota lan ildo nagusiak?**

Oraindik horretan gaude baina lau lan esparru nagusiak finkatu ditugu.

Lehenengo eta behin, euskal hiztun kopurua handitu nahi dugu, bigarrenik, euskararen erabilera esparru funtzional-ez informal horietan areagotu, batez ere aisialdian 12-16 urte bitartekoetan eta ingurune digitalean egin nahi dugu hau. Hirugarrenik, hizkuntza

# "Derrigortasun eta folkloretik kanpo utzi behar dugu euskara"

**ESTITXU ALKORTA JAURLARITZAKO EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARIA**

Funtsezkoa da berarentzat esparru digitalean euskarazko produktuak sortzea baita hauek erakargarriak izatea batez ere 12 eta 16 urteko gazteentzat

#### esku

bideen bidean, bermatu nahi dugu euskararen erabilera bai administrazioan baita eremu pribatuan ere.

Laugarrena eta azken lan ildoa izango litzateke, hiru lurraldetako harreman instituzionalak sendotzea. Harreman hori egonkortu eta lurraldeen artean koordinazio lan handiagoa egin hizkuntzari dagokionean.

Hau guztiarekin batera, ikerketa indartu nahi dugu. Hartzen ditugun erabakiak ikerketetan oinarria izatea nahiko genuke. Lau urte agian epe motza izango da baina nahiko genuke praktika bezala sailean orokortu. Hau da, erabaki bat hartu aurretik, ondo aztertutako zerbaiten gainean izatea nahi dugu. Ikerketa eta aplikazioaren urratsak izan daitezela oinarri, eman beharreko urratsetan, batez ere erabakikin asmatzen joateko. **Orain arte gauzatu diren hizkuntza politiketan ez al da asmatu?**

Aurreko lan taldeak oso lan ona egin zuen eta azken urteetan gauza askotan asmatu dela esan behar da.

Hala ere badira hutsuneak. Horregatik azken hauetan sakondu nahi dugu eta estrategia on bat gauzatzea lortzea dugu helburu.

**Zure zuzendaritzari dagokionez, zeintzuk dira indartu beharreko esparruak?**

#### Euskararen

sustapenari dagokionean, esan daiteke aipatutako lau ildo horiek barne hartzen dituela modu orokorrean, baina aipatutako bigarren hori da batez ere landuko duguna. Euskararen sustapena aisialdian eta nerabeei begira eta batez ere, hain azkar doan mundu digital horretan jarriko dugu indarra. Azken hauen kasuan, gu baino azkarrago aldatzen doaz eta diru laguntzak, erritmo horretara egokitu behar direla uste dugu.

**Euskara sustatzeko zeintzuk dira eman beharreko pausuak? Kale erabilera azken hamar urteetan gelditu da (%13 da azken datua).** Oso zaila da asmatzea. Guretzat berebiziko garrantzia du nerabeetan eragitea. Gaur egun 12 eta 16 urteko gazteengana iristeko produktu eraginkor bat behar da. Kontutan izan behar da aldaketa handia egon dela azken urteetan eta gaur gaurkoz, nerabeei ez zaie axola zein hizkuntzatan erabili behar duten WhatsApp-a, Interneta, edota edozein App.

### "ALDAKETAK EREMU DIGITALEAN AZKAR DOAZ ETA DIRU LAGUNTZAK HORRETARA EGOKITU BEHAR DIRA"

#### Beraien

mundura gerturatu behar dugu. Dagoeneko argi geratu da, ez duela balio betiko diskurtso pedagogikoak edota derrigortasunak. Era natural batean eta produktu erakargarriekin lortu behar dugu. Nola? Ba bueno badakigu, telebista asko ez dutela ikusten, Youtubera jotzen dutela eta indarra. Azken mugikorrekin aritzen direla batez ere. Horregatik, bereziki eman behar diogu indarra esparru horri, ingurune digitalari. Argi dugu adibidez, Wikipedia euskaraz indartu behar dugula edota nerabeei zuzendutako euskal App-ak sustatu.

Euskara derrigortasuna eta folklorearen diskurtsotik kendu behar dugu.

**Jaurlaritzak 'Go!azen' Telesaila babestu du. Hau al da bidea?** 'Go!azen' fenomenoari dagokionez, asmatu egin da gaiarekin eta iritsi da publiko jakin horrengana. EITBrekin balorazio bilera egin berri dugu eta egia esan, harrituta zeuden izandako harrera onarekin.

### "WIKIPEDIA INDARTU ETA NERABEEI ZUZENDUTAKO EUSKAL APP-AK SUSTATU NAHI DITUGU"

#### Arrakastatsua

izanda, telesailak jarraipena izatea adostu dugu. Hori bai, bertan azaltzen diren estereotipoei dagokionean, espresuki eskatu ditugu aldaketak. Gure lantaldean gehienak emakumeak gara, bada aurrera pausu bat, eta argi dugu genero ikuspegia gure politika guztietan txertatu egin behar dela. Telesailaren atal berrietan hori zaindu beharko dute.

Ezin da onartu hizkuntzari dagokionean eragitea, hau bezain garrantzitsua den genero ikuspegia alde batera utzita.

**Hizkuntzaren sustapenean zein paper dute euskalgintzako eragileek?** Eskutik joan behar dugu denok, eragile guztiok. Lankidetzak eta adostasunak izan beharko lukete bidea. Nire zuzendaritzatik, euskalgintzari ematen zaion diru laguntza mantendu edota igotzeko asmoa dago. Egia da aurtten aurrekontuak ia itxita aurkitu ditugula, baina datozen urteetan deialdian bertan egin nahi dira hainbat aldaketa.

Hori diot 2016ko diru laguntzen ebazpenean ikusi dugulako badaudela proiektu oso interesgarriak kanpoan geratu direnak. Balorazioa egin da eta penaz ikusi dugu hori. Ikusten dugu hizkuntza politika eraginkor bat egiteko, herritarren eta elkarten atxikimendua beharrezkoa dela. Bi osagai hauek gabe ezingo genuke aurrera egin horregatik ere sektorearekin harremana estutu nahi dugu eta norabide berean lanean jarri.

Elkarteei dagokionez, Udalekin dute harreman estuena, hurrengo urratsa nolabait esateko, Aldundiak dira eta gu Jaurlaritza, azkenak gara. Sare hori sendotzen joatea da gure asmoa. Foro interinstituzional bat badugu 'Hakoba' izenekoa, eta bertan hiru diputazioak eta hiru hiriburuak elkartzen gara koordinazio lanak egiteko.

Lehenengo aldiz Hakoban Kiroletako zuzendaritza sartuko dugu. Kirola beste esparru garrantzitsu bat delako hizkuntzaren erabilera bultzatzeko. **Lurraldeen arteko ezberdintasunak badaude...**

Dobaranek kontutan hartu du hori eta hiru lurraldeetako

TXINTXARRI ALDIZKARIA 2017-02-24 OSTIRALA

ikuspegia txertatu nahi izan du lantaldean. Irizpide bateratuak landu nahi ditugu beti ere, lurralde bakoitzaren egoera soziolinguintikoa errespetatuz.

Nafarroa eta Iparraldearekin elkarlana sustatzeko asmoa dugu. Momentua probestu behar dugu egin beharreko sinergiak gauzatu eta horiek etorkizunera begira sendotzeko. Momentu politikoari dagokionez behintzat, ezin aproposagoa da.

**IKT deialdian aldaketak egongo dira?**

Bai, astindu bat eman nahi diogu 'Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko egitasmoak' diruz laguntzeko lerro horri. Hasiera batean diru poltsa handi bat egotea lehenesten zuen sailak. Baina konturatu gara orain arte diru banaketa hori egin dugula irizpide oso zehatzik gabe.

IKT diru laguntza lerro horren izena aurrerantzean 'Euskara Ingurune Digitalean' izango da. Hainbat adituren aholkularitza izan dugu irizpide berriak jartzeko eta deialdia askoz bideratuagoa joango da aurrerantzean. Orain arte oso zabala zen eta ondorioz, azkenean komertzializatu ez diren produktuak diruz lagundu ditugu edota erdi bidean geratu direnak.

Ikusiko da, baina lehenetsiko ditugu proiektu onenak eta hauen artean nerabeei zuzendutako erakargarrienak.

'Traultza' horren bitartez, norabide jakin batean jarri nahi ditugu horretan diharduten enpresa baita elkarteak ere. **Euskarazko hedabideei dagokionez, zein da hauekin harremana eta lanerako helburuak?**

Esparru honetan esan nahiko nuke '0 minututik' nagoela sektorearekin harremanetan. Hau esaten dut, kargua hartu eta bi egunetan bilera egin nuelako Hekimenekin. Foru Aldundiekin bilera orokor bat genuen eta han atera zen Gipuzkoako Foru Aldundia Hekimenekin hasitako gogoeta prozesua. Euskara Zuzendaria den Mikel Irizarri eskaera egin nion hurrengo bilera horretara joateko eta hala gauzatu zen.

Bigarren bilera bat egin dugu dagoeneko, eta zein da helburua? euskal hedabideen sektorea



Zinegotzi lanekin jarraituko du herritarrekin hartutako 'arduragatik'. TXINTXARRI

### "EUSKAL HEDABIDEEN SEKTOREAREKIN GOGOETA PROZESUA EGIN BEHAR DUGU ERAGILE GUZTIOK"

### "PUBLIZITATE GEHIAGO JARRI BEHARKO GENUKE EUSKAL HEDABIDEETAN"

laguntzeko eta egonkortzeko esplorazio batzuk egitea.

Honakoa ez dator bakarrik aurreko diru laguntzen ebazpenagatik, tartean hori ere badago, baina horretaz aparte, ikusten genuen euskal hedabideen sektoreak behar zuela trataera berezi bat.

Gogoeta prozesu horretan bete betean murgilduta gaude eta euskal hedabideek euskararen normalizazioan egindako lana aitortzeaz gain, asmoa bada, lankidetzara hori denboran egonkortzea. Zein formula erabili behar dugu? Ba horretan ari gara. Zein emaitza emango ditu prozesu honek? Ez dakigu baina behintzat giro onean ari gara lanean. Foru Aldundia eta EHUKo jurista batzuk ere parte hartzen ari dira bileretan.

**Zein balorazio egin duzue hedabideei lehenengoz hiru urterako laguntzak banatu ostean?** Nik jaso dudanagatik, hiru urtetako laguntza emate hori, adostutako neurri bat izan zen baina egia da ere, balorazio irizpidetan diferentzia gehiago egon direla, irismenari eman zaion pisuagatik adibidez.

Ondorioa izan da, banaketa beste proportzio batean egitea. Horrela izanda, esan daiteke, tokiko komunikabideak hobeto atera direla hedabide nazionalak baino.

Hala ere, esan beharra dago diru laguntza lerro hau azken bost urtetan ez dela jaitsi. Diru poltsa pixkat handiagoa ere bazen azken deialdi honetan. Banaketa izan da diferentea, hori bai.

**Hurrengorako aldaketak aurreikusten dituzue?**

Ikusiko da gogoeta prozesuak zer ematen duen. Baina behintzat gure asmoa bada proiektu komunikatibo osoa laguntzea. Eta ez orain arte bezala weba, papera, App-a... nolabait produktu bakoitzari banaka dirua ematea.

**Badago lana esparru honetan...**

Oraindik badago lana bai. Helburuetan denok ados gaudela esango nuke, egindako lanaren aitortzan ados gaude, gure iparra zein den horretan ere ados gaudela esango nuke, baina nola egin? Sektore honen baitan badira zailtasunak besteak beste, mota guztietako hedabideak daude, enpresak, irabazi asmorik gabeko elkarteak, norbanakoak... papera bakarrik ateratzen

dutenak, soilik digitalean ari direnak, irriatiak, telebistak... Beti ere aitortuta, guztiek euskararen normalizazioan egin duten eta egiten duten lana.

Erakunde bezala ezin dugu ahaztu Euskararen Legeak hedabideen sektoreak behar zuela trataera berezi bat. Gogoeta prozesu horretan bete betean murgilduta gaude eta euskal hedabideek euskararen normalizazioan egindako lana aitortzeaz gain, asmoa bada, erakundeak 'behartuta' gaude eskubide subjektibo hori bermatzea.

**Tokiko hedabideen esparruari dagokionez, nola ikusten dituzu?** Tokikomekin harremana ere estua da. Gainera Gipuzkoako Foru Aldundiak bere garaian hasitako prozesu, foro baten emaitza da Tokikom. Orduan beharra ikusten zen tokikoak mahai baten inguruan jartzea eta zegoen atomizazio hori ahalik eta gehien kentzea. Lortu duzue elkartzea eta interlokuzio bakarra bideratzea, horrek bere garrantzia badu erakundearen ikuspegitik.

Orain, lehen aipatzen nuen hausnarketa orokor horren baitan zaudete murgilduta ere.

Nire ikuspegitik, etorkizuna baduzue eta behintzat gure asmoa ez da tokiko hedabideak eta nazionalak bereiztea. Hala ere, Udalekin harreman estuagoa duzuela uste dut. Babestuago sentitu zaitezkete udala edota Foru Aldundiagatik.

**Zer gertatzen da publizitate instituzionalarekin?**

Esparru honetan lan asko dago egiteko etxe barruan. Legebiltzarrean onartu zen, ez zen gutxieneko ehunekoa jarri, euskal hedabideetan egin beharreko publizitatea askoz handiagoa izan behar zuela eta ez zela izango Euskara sailaren eginkizun bat baizik eta sail guztiena. Gauzatzeko ordea, etxe barruan sentsibilizazioa eta lana dago egiteko.

**Zergatik eman erdal komunikabideei diru laguntza?**

Honen inguruan asko hitz egin da. Pizgarri bezala ulertzen du gure sailak diru laguntza lerroa. Hedabide hauen kasuan, orokorrean gaitasun ekonomiko handia dute, autofinantzaketa maila altua eta beraz, euskaraz ere egin dezaketela uste dugu. Diru laguntza pizgarri bat da euskaraz zerbait egin dezaten. Ez da euskal hedabideetan bezala, hauek mantentzeko bideratzen dela dirua.

ELKARRIZKETA

# "Lasterketa aldapatsuetan moldatzen naiz hobekien"

**IÑIGO ALTUNA** GRUPO EULEN JIRA-BIRA TALDEKO TXIRRINDULARIA

23 urte azpikoen mailan egin du debuta Iñigo Altunak (1998), Jira-Bira taldearekin. Hasi berri den denboraldira begirako erronkak eta sentsazioak helarazi dizkigu txirrindulari gazteak

## Martin Vicioso

Aurretik erronka zaila duela konziente da Iñigo Altuna (1998), baina itxaropentsu da hasi berri duen errepideko denboraldiarekin. Kategoria berrian estreinatu da. **23 urte azpikoen mailara egin duzu jauzi aurten, eta talde berri batean zaude. Nola doaz entrenamenduak?** Gogorrak. Ordu gehiago entrenatzen ditugu, eta kilometrajea asko igo dut. Hala ere, emaitzak onak dira. Orain arte jasotako datuak eta egindako testak positiboak dira.

## Zorte txarra eduki zenuen Espainiako Ziklokross Txapelketan.

Bai. Laugarren urtea da Euskadiko selekzioarekin joan naizela. Hasiera batean, ez nuen joateko asmorik, baina emaitza onak nituela ikusirik eraman nau taldeak. Azkena atera ondoren, lehenengo hamarretan kokatzea lortu nuen, eta eroriko batengatik ezin izan nuen ondo bukatu. Pena izan zen, batik bat, UCI puntuak banatzen dituztelako lasterketa horretan, eta datorren denboraldirako eskertuko nituzkeen puntu horiek ez nituelako eskuratu.

## Zein modalitate landuko dituzu?

Udara pasa arte errepidean aritza egokitzen zait. Datorren urtera begira, halere, taldeak ziklokrossaren aldeko apustua



Iñigo Altuna, Grupo Eulen taldeko aurkezpenean hizketan. MARTIN EARLY

eringo du, eta bertan izango naiz ni ere.

## Non zaude erosen?

Sentsazio ezberdinak dira. Errepidea fisikoagoa da, eta aldapak jartzen zaitu zure tokian. Are gehiago Euskal Herrian, non lasterketa gehienek duten mendateren bat. Ziklokrossean teknikak garrantzia handia du. Bietan aritzen naiz gustura, baina badakit etorkizuna

errepidean dagoela. Izan ere, jauzia ziklokrossean ematea oso gutxi lortzen dute

## Euskal Herriko frogak hastear dira

Asteburuan Zumaian dugu froga, hasiera batean sprintean amaituko den lasterketa batean. Datorren astean Espainiako Kopa lehiatuko dut Asteasu, Billabona, Aduna eta Alkizatik igarotzen den ibilbidean. Oso txirrindulari onak etorriko dira, eta irabazleak

normalean profesionaletara egiten du jauzi, lehenago edo beranduago. Nire lehenengo urtean halako lasterketa batean parte hartzea oparia da niretzat.

## Denboraldiaren zatirik gogorrena udaberriaren dator.

Bai, kargarik handiena apirila eta maiatza aldera dator. Bidasoako eta Nafarroako Itzuliak hor ditugu, guretzako garrantzitsuak diren beste hainbat txapelketekin batera, Gipuzkoako eta EAeko txapelketak kasu. Taldearen helburua txapelketa horietan aurrean egotea da. Nahiz eta denboraldia orain hasi, helburu nagusiak hor daude. Horregatik, hilabetez hilabete nahi dugu maila hobetzen joan helburuak finkatuz eta aurrera pausoak emanez.

## Zure erronka pertsonalak zeintzuk dira?

Urte gogorra izango dela badakit. Berria naiz taldean eta kategorian. Ikusita Essor Basque-n itxura ona eman dugula, bai nik eta bai taldeak orokorrean, itxaropentsu gara. Ahal den guztia ikasten saiatu behar dut, kategoriara ahalik eta azkarren moldatuz. Ea hilabete batzuetan ihesaldietan egoten hasten garen eta, zergatik ez, lasterketaren bat lehiatzen.

## Zein lasterketa mota dituzu gustuko?

Nire ezaugarri fisikoak kontuan hartuta, aldapan gora nabil hobekien. Lasterketa gogorrak gustatzen zaizkit, aldaparekin. Egutegian denetik dagonez, denetara moldatu beharko dut, eta niretzat aproposak ez diren karrera horietan taldekideen aldeko lana egingo dut.

## "ENTRENAMENDUAK GOGORRAGOAK DIRA, BAINA JASOTAKO DATUAK POSITIBOAK IZAN DIRA ORAIN ARTE"

## Buruntzazpiko Asier Pozo hirugarren Euskadikoan

Buruntzazpi taldeko txirrindulari gazteak ederki ari dira pistako denboraldian. Iragan asteburuan Euskadiko txapelketa jokatu zuten Anoetako belodromoan. Asier Pozo kadetearen lana izan zen bereziki azpimarratzekoa: 135 puntu bilduta, podiumaren hirugarren mailara igo eta brontzezko domina irabazi zuen..

Markel Aristegi eta Aaron Anzizar taldekideek ere maila ederra eman zuten: 14. eta 17. izan ziren sailkapen orokorrean, 39 eta 24 puntu eskuratuta, hurrenez hurren. Pistako egutegia alde batera utzi eta errepidera begira jarriko dira orain Buruntzazpiko ziklista gazteak.

## LOKE-Sasoetako gimnastak hirugarren Carmelo Baldan

Pasa den igandean Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan eskola faseko lehenengo jardunaldia jokatu zuten LOKE taldeko gimnasta alebin eta infantilek.

B mailan, Lasarte-Oriako bi taldek hartu zuten parte: Sasoeta-LOKE eta Landaberi-LOKE. Lehenen lan txukunak saria eduki zuen, hirugarren geratu baitziren. Landaberrikoek, aldiz, ez zuten zorte handirik izan eta 12. postuan bukatu zuten. Hala ere, entrenatzaile Maite Ruedak nabarmendu du "oso lan ona" egiten ari direla.

Alebinetako banakako kategorian Alexia Barquinek zortzigarren postua eskuratu zuen 23tik.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

**Ostadar SKT - Touring**  
Ostirala. 20:00. Michelin.

### PILOTA

#### UDABERRI TXAPELKETA - SENIORRAK

**Intza KE - Behar Zana 2**  
Larunbata. 11:00. Michelingo pilotalekua.

#### UDABERRI TXAPELKETA - INFANTILAK

**Intza KE - Hernani**  
Ostirala. 19:30. Michelin pilotalekua.

### BINAKAKO PROMOZIO TXAPELKETA

**Arteaga II/Erasun - Dario/Jaunarena**  
Igandea. 17:00. Astelena pilotalekua, Eibar.

### ARETO-FUTBOLA

#### GIPUZKOAKO 1GO MAILA

**Cecilia Ostadar - Iurre Taberna**  
Larunbata. 15:45. M.Chourraut kiroldegia

#### 3. NAZIONAL MAILA

**Presion Break - Ostadar Antonio**  
Igandea. 12:00. Berrisburu, Berriz.

### HERRIKO TXAPELKETA

#### Kattagorri Insausti - Indaux

Ostirala. 19:45. Kirolgunea.

#### Reformas Lagunak - Urdaneta H.K.

Ostirala. 20:45. Kirolgunea.

#### Izkiña - Ibaros Latino

Larunbata. 09:30. Kirolgunea.

#### Txoko - Viña del Mar

Larunbata. 10:30. Kirolgunea.

#### Ilargi - Kebab Taberna

Larunbata. 11:30. Kirolgunea.

### Trumoi - Also

Larunbata. 12:30. Kirolgunea.

### IGERIKETA

#### EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

#### Buruntzaldea IKTKo igerilari infantilak

#### Euskal Herriko Txapelketan

Larunbata eta igandea. Azken Portu, Irun.

#### EH-KO NEGUKO TXAPELKETA

**Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek Euskal Herriko Neguko Txapelketa jokatuko dute.**

Larunbata eta igandea. Majori kiroldegia.

### ERRUGBIA

#### OHOREZKO B MAILA

**Campus Ourense - Babyauto Zarautz**  
Igandea. 12:00. Ourense.

### TXIRRINDULARITZA

#### ERREPIDEKO SARIAK

**Buruntzazpi Txirrindularitza**  
**Eskolako txirrindulari infantilak (Oartzunen), kadeteak (Ibaetan) eta juniorrak (Eibarren) lehiatuko dira.**





Aurreko denboraldian UBU Aparejadores kontrako partiduko irudia. AINHOA MURIEL

# Babyauto Zarautz, bizirik maila igotzeko borrokan

Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, Ohorezko Mailara igotzeko itxaropenik ez du galdu Babyauto Zarautz taldeak. Ander eta Xabier Rekondo, Xabier Prieto, Julen Aristorena eta David Vega herritarrak denboraldi ona ari dira egiten talde zarauztarrean

## Martin Vicioso

Ohorezko Mailarako igoera oraindik urruti ikusi arren, urrezko puntuak lortu ditu Babyauto Zarautz taldeak CRAT A Coruñaren aurka. 36-16 gailendu zen talde euskalduna.

Lehenengo zati orekatua jokatu zuten bi taldeek, baina Babyauto-k hiru puntuko errenta eskuratu zuen atsedenaldira. Bigarren zatian hobeto atera ziren Phillip Huxforden mutilak, eta alde erosoarekin jokatu zituzten azken 20 minutuak.

## Aurrera egiteko itxaropena

Xabier Rekondo, Ander Rekondo, Xabi Prieto, David Vega eta Julen Aristorena lasarteoriatarren taldea hirugarren postuan da momentu honetan. Donostiako Bera Bera zortzi puntura dute –garaipen bakoitzak lau puntu ematen ditu–, eta jardunaldi gutxi geratu arren, badute bigarren koskara igotzeko aukera.

Izan ere, elkarren artean jokatu beharko dute Zarautzen

azkenaurreko partiduan, eta Bera Berak partidu guztiak irabazi dituen UBU-Colina liderraren aurka jokatu beharko du liga amaitzeko.

Hortaz, zarauztarren eskuetan egon ez arren, litekeena da partidu guztiak irabazita 'playoffetarako' txartela ematen duen bigarren postu hori eskuratzea.

Ohorezko B mailako bi taldetako txapeldun eta txapeldunordeek euren artean jokatu dituzte igoera kanporaketak. Irabazlea zuzenean igoko da, eta 2017-2018an Ohorezko Mailan ariko da. Finalistak, berriz, lehenengo mailako azken aurrekoaren kontrako kanporaketa jokatu

**HIRUGARREN POSTUAN DAUDE ZARAUZTARRAK, BERA-BERA TALDEARENGANDIK 8 PUNTURA**

beharko du, joaneko eta itzuleko formatuan. Gauzak horrela, eta tartean aurkari arriskutsuak izango dituztela ikusita, argi dago lan handia dutela aurretik. Hala ere, ez dirudi zarauztarrak erraz kikilduko direnik.

Asteburu honetan Ourensera bidaiatu beharko dute, bosgarren tokian den Campus Ourense taldearen aurka jokatzeko.

## Gazteak, sendo

18, 16 eta 14 urte azpikoen Gure Etxea Beltzak taldeek Hernani RTren aurkako partiduak jokatu zituzten Zarauzko Asti zelaian. Lehenek ezin zuten garaipena eskuratu, hernaniarrek 5-15 menperatu baitzituzten, baina beste bi taldeek garaipen sendoak lortu zituzten: 31-12 16 urte azpikoe, eta 19-17 14 urte baino gazteagoek.

Txikiak, 12 urtetik beherakoak, errugbi eskolen topaketan egon ziren Aieteko zelaian, eta arduradunek azaldu dutenez "oso itxura ona" eman zuten.

## Bolada onean Ostadar SKT-ko gizonezko seniorrak

61-44 garaitu zuten lidertzan zen Katu-Kale taldea, eta azken zazpi partiduetatik sei irabazi dituzte

### Txintxarri

Ligaxka amaitzeko hiru partidu falta direla, leku onean dira Ostadar SKT-ren saskibaloitaleko gizonezkoen seniorrak. Pasa den ostiralean Eibarko Katu-Kale taldea hartu zuten Maialen Chourraut kiroldegian, eta nagusitasunez gailendu ziren urdinbeltzak, 61 eta 44.

Lehenengo laurden motel baten ondoren, bigarrenengoan eskuratu zuten abantaila Ostadar SKT-ko mutilek. Atsedenaldira 35-20 joan ziren.

Indarrez atera ziren eibartarrak aldagelatik eta markagailuan hurbiltzea lortu zuten. Asierren bi saskiratzeek, berriro ere, alde 10 puntura zabaldu zuten azkeneko laurdenaren atarian. Amaiera ona eman zioten lasarteoriatarrek norgehiagokari, eta 17 punturen tartearrekin irabazi zuten.



Hiruko jaurkiketa. OSTADAR SASKIBALOIA

### Bigarren postuan

Sailkapena estutu egin da ostiraleko partiduez geroztik. AIB da orain lidertzan, bi partidu besterik galdu ez dituela. Garaipen bat gutxiagorekin dira Ostadar SKT, Katu-Kale eta Cafes Aitona.

## Arteaga II eta Erasun Promozio Txapelketako finalerdietatik gertu

Peña II eta Apraiz nagusitasunez menpean hartu ondoren (22-5), finalerdietarako sailkapena poltsikoan dute Axier Arteagak eta Jon Erasunek. Hasi eta bukatu, gehiago izan ziren lasarteoriatarra eta zizurkildarra, atzean pilota sendo astinduz eta tantoak segurtasunez bukatuz.

Erasunek ez zuen hutsik egin bere herrian, eta eskuratutako

garaipenari esker, bikote gipuzkoarrak urrats garrantzitsua eman du. Bigarren postuan dira, lau punturekin. Aurkari guztiek bere partidua irabazi eta ligaxkako azken partidua galduko balute ere, ez lirateke tanteo okerrenarekin geratuko. Beraz, hurrengo fasean, finalerdietan, jokatzeko txartela birtualki bermatuta dute.

Igande honetan, Dario eta Jaunarena izango dituzte aurkari Eibarko Astelena pilotalekuan 17:00etatik aurrera jokatu duten jaialdian.

## Buruntzaldea IKTko igerilariak bikain, berriro ere

Neguko denboraldiko azken hitzorduetan barneratuta daude Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak.

Azpeitian jokatu zen Gipuzkoako Neguko Txapelketa, eta nabarmentzekoak dira igerilari lasarteoriatarren emaitzak. Leire Martinek EAeko errekorra hautsi zuen 400 estiloak frogan. Ainhoa Martinek eta Paula Sevillanok

ere urrea lortu zuten 200 bular eta 800 libre frogetan. Espainiako Txapelketarako txartela lortu dute hirurek.

Guztira urrezko hiru domina, zilarrezko zazpi eta brontzezko hamaika eskuratu zituzten Buruntzaldea IKTko kirolariak.

Nahia Zudairek, bestalde, Gipuzkoako Igeriketa Egokituko Txapelketa irabazi zuen, parte hartu zuen hiru frogetan markak hobetuz.

Aste honetan EAeko Txapelketak jokatu dituzte.



Gipuzkoako 1go mailako ISU Leihoak taldeak 5-1 irabazi zuen Power Rangerson aurka. TXINTXARRI

## Bigarren zatian etorri ziren golak eta garaipena

Garaipena lau goleko aldeagatik poltsikoratuta ere, majo egin behar izan zuen lan ISU Leihoak taldeak. Bigarren zatian etorri ziren golak eta garaipena: Power Rangers-  
5-1, eta Laubururi 3-4 irabazita, sailkapenaren erdialdean daude, 33 punturekin

### Iñigo Gonzalez

Kosta zitzaion golen kutxa irekitzea ISU Leihoak taldeari, baina egin zuenean, bata bestearen atzetik etorri ziren. Bigarren zatian guztiak. Bost. Power Rangers aurkariak ere sartu zuen ohorearen gola. 60 minutuak jokatu, 5-1, beraz.

Baloia jokoan jarri bezain pronto hasi zen etxeko taldea agintzen Maialen Chourraut Udal Kiroldegian. Garaipena poltsikoratzea berebizikoa zen Eneko Molinaren taldearentzat, denboraldi erdian playoff postuetatik oso urruti geratu nahi ez bazuten. Gauzak horrela, golaren bila irten ziren gogotsu, baina aurreneko 30 minutuetan ezin izan zuten bakar bat ere sartu. Aukerak eduki zituzten: Javi Solchagaren jaurtiketa bat zutoinera, Jon Arozenaren hainbat saiakera... baina ezin. Esan bezala, 0-0 atsedendaldian.

Herriko taldea ez zen urdururi jarri eta lanean jarraitu zuen. Bigarren zatian ailegatu zen hainbeste

bilatutako saria: ohartzeko 3-0 ari zen irabazten ISU. Power Rangersek 3-1ekoa sartzea lortu zuen, baina Eneko Molinaren taldeak ez zion garaipenari ihes egiten utzi eta bi gol gehiago sartu zituen. ISUren golak Lander Martinek, Eric Utielek, Jon Arozenak, Unai Ituarte eta Javi Solchagak sartu zituzten.

Asteartean bolada onari jarraipena eman zioten, asteburutik aurreratutako partiduan, Lauburu Aldazi 3-4 irabaziz. Sailkapenean erdialdean dira Molinaren mutilak, 33 punturekin, 'playoff' postuak gertu dituztela.

### Cecilia Ostadarren porrota

Lasarte-Oriak Gipuzkoako 1go mailan daukan beste ordezkari Cecilia Kebab Lasarte Ostadarrek ezin izan zuen punturik bildu Egarrri Tabernaren aurka.

Lehenengo zatian urdin-beltzek eduki zituzten aukera garbienak, baina Egarrri aurreratatu zen markagailuan. Atsedendira joan aurretik berdindu zuen

Ostadarrek, Josu atezainaren jaurtiketa bat baliatuz.

Bigarren zatia ere oso paretsua izan zen, hamar minuturen faltan Egarrrik 2-1ekoa sartu arte. Berrero ere atezain jokalaria aterata, Iñakik 2-2koa sartu zuen. Une horretan, Edu Menaren taldeak partiduan bila joatea erabaki zuen sistema berbera mantenduta, baina ez zitzaion ongi atera: 3. eta 4. golak sartu zituen Egarrrik azken minutuetan.

Gauzak horrela, sailkapeneko 10. postuan da Ostadar; 18 puntu ditu. Jaitsiera postuekiko aldea edukitzen jarraitzen du, baina datozen jardunaldietan garaipen gehiago lortu beharrean dira.

Jubenil mailan, Kafe Bar Lasarte taldeak 8-2 irabazi zion Laskoraini, eta 10-4 galdu Kafe Bar Buenetxeak, Goierriren aurka. Denboraldi oso ona egiten ari dira biak; 20 eta 21 puntu bildu baitituzte, hurrenez hurren.

3. Nazional mailan ari den Ostadar Antonio Aroztegiak berriz, atsedend hartu du jardunaldi honetan.

## Maria Mendibe herritarra nagusi Sopelako Duatloiean

01:07:17ko denborarekin, emakume azkarrena izan zen Maria Mendibe lasarteoriatarra Sopelako Duatloiean

### Txintxarri

Lasterketa bikaina egin ostean, Maria Mendibe herritarra garaile atera zen Sopelako Duatloiean. Ordubate eta zazpi minututan amaitu zuen froga, eta minutu bateko aldea atera zion Andrea Medierori eta bikoa Beatriz Lalagunari.

Sprint modalitateko froga zen asteburukoa. Korrika bost kilometro egin ondoren, bizikletan 20ko ibilbidea egin zuten. Duatloia korrika bukatu zuten, 2,5 kilometroko amaiera azkar batekin.

Trinko taldearekin lehiatzen den Leo Juarez herritarrek ere parte hartu zuen frogan, eta lan ona egin zuen hark ere, ordubate eta bost minutuan amaituz.

### Iriondo, txukun Sevillan

Sevillako Maratoia korritu zuen Ander Iriondo korrikalari



Mendibe, korrika. MARIA MENDIBE

lasarteoriatar beteranoak. Bosgarren postua eskuratu zuen 70 urtetik gorako kategorian, 3 ordu eta 37 minutuko marka egin ondoren.

Kategoriako denbora onena Javier Garciak egin zuen: 3:13:09 ordutan.

## Herriko atleten lan ona Espainiako absolutu txapelketan

Eneritz Busto (LOKE) eta Maria Eugi (Atletico San Sebastian) atletek ordezkatu zuten gure herria Espainiako absolutu mailako pista estaliko txapelketan. Salamancan jokatu zen, joan den asteburuan zehar.

Eugik 200 metroetako proban hartu zuen parte, eta ederki aritu zen: lehenengo kaleratze

errondan 24.64ko denbora egin zuen, bere inoizko marka pertsonal onena. Finalerdietan 24.93 segundotan geratu zuen kronometroa, eta finalerako txartela lortu. 25.04ko denbora egin zuen azken lasterketan.

Eneritz Busto, berriz, 60 metro hesietan aritu zen, eta finalerako txartela lortzerik izan ez bazuen ere, denboraldiko marka onena egin zuen larunbatean, kronometroa 8.79 segundotan geratuta. Ederki aritu ziren biak, beraz.

## Maialen Chourrauti saria 'World Paddle Awards' ekitaldian

Maialen Chourraut herritarrek egindako denboraldi bikainak oihartzuna izaten jarraitzen du. Iragan asteburuan Portugalen ospatutako 'World Paddle Awards' (Munduko Arraun Sariak) ekitaldian saria jaso zuen.

Herritarrek adierazi du "oso pozik" dagoela jasotako aitortza horrekin. Otsail hasieran ere saritua izan zen Maialen:

Espainiako Piraguismo Federazioak urteko piraguista onenaren saria eman zion herritarri.

Sari banaketa ekitaldien artean, herritarrek jo eta ke jarraitzen du entrenamenduekin, aurtengo erronka berriak ahalik eta ongien prestatze aldera. Irailean Paun jokatu den Munduko Txapelketa du helburu nagusia. Jadanik zabala den palmaresa oraindik ere aberatsago bihurtzeko aukera bikaina izango du lasarteoriatarrek.

## ZORION AGURRAK



**Aiora**  
Zorionak Printzesa! Bi muxu handi familia osoaren partetik! Askok asko maite zaitugu!




**Eire**  
Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure 7. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik.




**Ibai**  
Aupa txapelkun!! Ze haundia hiru urtekin... Muxu erraldoi bat zure familiarena.



**Claudia**  
Zorionak familia guztiaren partez zure 7. urtebetetzean.



**Gares**  
Zorionak!! Zure irribarre alaia nire bizi-poza da, telefono beste aldetik. bi musu potolo!!



**Juan Luis eta Jone**  
Zorionak etxekoan partetik, fitxajes!



**Sara eta Lorena**  
Zorionak gure printzesei!!! Oso ondo pasa zuen 9. urtebetetzean! Muxu pila bat zuen familia eta lagunen partetik!




**Andoni**  
Zorionak aita, ama eta Aroaren partetik. 7 belarri tiratze eta muxuak.




**Izaro**  
Zorionak printzesa zure familia osoaren partez !!!!



**Garoa**  
Zorionak bihotza! Ondo ospatu zure eguna eta jaso zazpi muxu potolo!



**Richard**  
Zorionak Begoña, Patxi, Imanol, Itziar, Pablo eta Maiteren partez.



**Udane**  
Zorionak!! Ondo pasa zure zortzigarren urtebetetzea mozorrotuta!! Muxu erraldoiak familiaren partetik.



**Luixito**  
Zorionak Luixi!! Inauteriak ez dira egun txarrak urteak ospatzeko! Ikusten bagara, argazkiko basoka bat zure kontu!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**  
Txintxarri.eus-en  
[txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra) eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

## GUTUNA

**Gema Gonzalez de Txabarri hezkuntza delegatuari****GARAIOETXEA-LANDBERRIKO IRAKASLE TALDEA**

Lasarte-Oriako Garaioetxea-Landaberri ikastolako irakasle talde bat gara, oso kezkatua erraustegiaren eraikuntza proiektuarekin.

2016ko maiatzean ikastetxeako Organo Gorenak eskutitz bat aurkeztu zuen Donostiako Hezkuntza Delegaritzan gure kezka adieraziz eta erantzun bat eskatuz 2016ko abenduan klaustro bat egin genuen erraustegiaren gaiaz eta bertan berretsi genuen gure kezka eta erantzunaren beharra.

Lizitazioa aurrera doala ikusita, eta oraindik Hezkuntzatik erantzunik jaso gabe, gure ikastetxea erraustegia eraikitzea

aurreikusten den kokagunetik 500 metrotara egonda ere, nolako eragin eta zein ondorio izan ditzakeen gure osasunaren kaltetan aintzat hartuz... kezka ezinegona bihurtu da.

Komunikabideetan argitara eman diren adituen hainbat txosten jakitera eman dute (tartean CSIC-koenak, Sendagilez osatutako Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldekoenak eta Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatearenak), eta beren ikerketa zorrotz, luze eta sakonek ondorioztatu, batez ere arnas eta kardiobaskular sistemak gerta daitezkeela kaltetuak, tumoreak eragiteraino ere.

Nork ziurtatzen du gure haur ikasleen osasuna ez dela kalteturik izango hemendik ez oso epe luzera, urtero aurreikusten dituzten 155 mila tona erraustearen ondorioz

haizatuko diren dioxina eta mikropartikula iragaitzez? Baita errausketaren ondorioz sortuko liriatekeen aipatutako kopuru horren tratatu beharreko errausn laurdenaz?

Osasunean ondorio kaltegarriak ez dituela eragingo diote, ordea, Aldundiko agintariek; zein oinarri zientifikoz?, eta, noren bermez? Ez, behintzat, Europar Batasuneko Ingurumen Batzordearena. Piotr Barczak arduradunak dionez, errausketa teknologiak, onurak baino, kalteak ekartzen ditu ekonomian eta ingurumenean.

Ez dugu onartzen interes orokorrekoa izendatzea osasunarentzat kaltegarria izan daitekeen errausketa proiektua.

Gure ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak eta Agenda 21 proiektuak, ingurumenaren sostengarritasuna jarduerak

sustatzea duena helburu, ez liriateke, ez kongruente, ezta bateragarri ere zaborraren kudeaketarako errausketa proiektua nagusituko balitz.

Erantzun argia eskatzen dugu. Hori jaso ezean, publikoki adierazten jarraituko dugu gure kezka.

## OHARRAK

**Odol-ateratzea**

Hilabete ko azken astelehenean, otsailaren 27an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

**Aterpea saria**

Belen de Pablo herritarrak irabazi du bi pertsonentzako afaria Martin Berasategin. Lizardi optikak eman du saria Aterpearen bezeroaren hamabostaldiaren baitan.

**Eskiatzera irteera**

Kuadrillategik eski irteera antolatu du martxoaren 12an, Astunera. Irteera, Hipodromoan 6:00tan eta itzulera 20:00tan. Izen ematea otsailaren 27tik martxoaren 3ra egin ahalko da Ttakunen. 70 euro bazkideentzat eta 75 euro ez bazkideentzat (autobusa, Forfaita eta materiala barne).

## AZOKA TXIKIA

### 1. ETXEBIZITZA

**101. SALDU**  
Babes ofizialeko etxe argitsua saltzen da Basaundi auzoko Txartel kalean, 177.090euroren truke (garaje marra eta trasteleku barne). Informazio gehiagorako 665 709 680  
Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko 663 515 265

### 2. LAN ESKAINTZAK

**201. ESKAINTZAK**  
Etxeko lanak egiteko emakumea behar da, Zubietan. 695 183 202  
**202. ESKAERA**  
Emakumea eskaintzen da gauetan pertsona helduak zaintzeko. Vilma. 634 278 198

### 202. ESKAERA

Mutila eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko orduka edo interno gisa. 655 545 635  
**202. ESKAERA**  
Emakumea eskaintzen da umeak edo pertsona adinduak zaintzeko. Maria. 688 854 512


### 3. SALEROSKETA

**301. SALDU**  
Sofa ia berria saltzen da, gris iluna 2 metro luzekoa eta bizkarra zein oinazpia mugitzen dira. 943 366 114  
**302. ALOKATU**  
Bi plazako garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalen. 686 674 552

### 4. IRAKASKUNTZA

**402. EMAN**  
Euskara edo ingelesa irakasten dut. Ekonomikoa. 600 766 068.

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

\*Eskola egunetan

## HILDAKOAK

**Hilario Ortiz de Guzman Larrea.** Otsailaren 21ean, 83 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 24 GANDARIAS-URIBE  
Larunbata, 25 DE MIGUEL  
Igandea, 26 DE MIGUEL  
Astelehena, 27 ORUE  
Asteartea, 28 DE MIGUEL  
Asteazkena, 01 LASA  
Osteguna, 02 GIL

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## ESKELAK

**ESKELAK JARTZEKO:**  
Txintxarri erredakzioan  
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

**Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan**

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Erredakzioa

Maidier Azurmendi,  
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,  
Martin Vicioso.

### Publikitate

Arantxi Zulaika.

### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maidier Segurola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi.

### Informatikoa

Xabier Amador.

### Administrataria

Arkaitz Urdapilleta.

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua:

SS-513/94  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALAK

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 24

**LASARTE-ORIA Elkarretaratzea**  
'Argi eta lñaki gogoan, dispertsiorik ez' lelopean egingo da hilabeteko azken ostiraletako elkarretaratzea. Bi herritarrak istripuz hil zirela 14 urte betetzen dira.  
*Okendo, 20:00etan.*

**ANDOAIN Kontzertua**  
Udal Musika eskolako ikasleek Inauterietako kontzertu bufoa eskaiko dute.  
*Bastero, 18:00etan.*

**ASTIGARRAGA Liburu Aurkezpena**  
'Evasores, morosos y millonarios vascos' liburuaren aurkezpena egingo du Ahoztar Zelaietak. Astigarragako Gazte Asanbladak antolatutako ekintza da.  
*Kultur etxea, 19:00etan.*

## LARUNBATA 25

**LASARTE-ORIA Inauteriak**  
Konpartsak 12:00etan elkartuko dira Okendon. Ordu erdi beranduago aurkeztuko dira parte-hartzaile guztiak. 14:00etan, konpartsen arteko lehiaketa hasiko da. Eta 14:30etan herri bazkaria. 16:00etan Super Bingoan egingo dute gaztetxoek. 17:00etan karrozen desfilea abiatuko da plazatik. 20:00etan txokolate jana eta 23:00etan hasiko da Disko Jaia.  
*Erdigunea, egun osoz.*

**URNIETA Antzerkia**  
'La mirada del otro' antzezlana gozatu ahal izango da 'Bakea eta bizikidetz' jardunaldien baitan. Sarrera doan.  
*Sarobe, 19:00etan.*

## IGANDEA 26

**LASARTE-ORIA Inauteriak**  
12:00etan hasiko da poteoa, Oaintxe in deu! txarangak girotuta. 16:30ean mozorroen lehiaketa herrikoia eta banakakoa hasiko dira, eta festa-asteburua



**LASARTE-ORIA Inauteriak.**  
Inauteriak ospatuko dira asteburu osoan zehar. Larunbatean konpartsen desfileak hartuko du protagonismoa. Igandean berriz, mozorro lehiaketa egingo da lehenengoz.  
*Larunbata eta igandea, Okendo plaza*

ixteko, 'Rockalean' emanaldia izango da Okendon.  
*Erdigunea, 12:00etatik.*

**LASARTE-ORIA Kontzertua**  
Ganbera-musika 'Trio Primavera' taldeko Carlos Rosat, Itsasne Fernandez eta Tomas Rutik eskainita. Mozart, Pleyel eta Beethovenen piezak joko dituzte.  
*Atsobakar egoitza, 11:00etan.*

**LASARTE-ORIA Dantza**  
Ohiko hitzorduari jarraiki, Muxikoen saioa izango da dantza-plazako kideen esku. Saioa irekia da eta herritarrak parte hartzera deitzen dituzte.  
*Okendo, 12:00etan.*

**URNIETA Haur Antzerkia**  
'Kapot' lanak bi zororen eta auto baten ihesa kontatzen du. Barretik eta optimismotik gerren drama unibertsalera eta bere zeharkako efektuetara hurbiltzen gaituen komedia hunkigarri, urratzaile eta zentzugabekoa da. Familia guztiari zuzendutako lana da. Sarrera 3 euro.  
*Sarobe, 17:30ean.*

## ASTELEHENA 27

**ASTIGARRAGA Literatur Solasaldia**

Jorge Carrerok zuzenduta, Bohumil Hrabal idazle txekiarraren 'Trenes rigurosamente vigilados' liburuaren inguruan ariko dira parte hartzaileak.  
*Liburutegia, 19:30ean.*

## ASTEARTEA 28

**HERNANI Ipuin Kontalaria**  
Maite Franko ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu, lehenengoa 3 eta 4 urteko haurrentzako 17:30ean hasita eta 5-7 urte artekoentzat jarraian, 18:00ak inguruan.  
*Biteri Kultur etxea, 17:30ean.*

## OSTEGUNA 02

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**  
LAB-eko irakaskuntza lerroak antolatutako hitzaldia. Ebaluazio sistemaz eta Hezkuntza eredu propioa eraikitzeaz jardungo dira. Hitzaldi irekia da eta Gipuzkoa mailako deialdia.  
*Manuel Lekuona, 17:30ean.*

**HERNANI Hitzaldia**  
'Iruña Veleia auziaren aterabidea' hitzaldia eskainiko du Patxi Zabaleta SOS Iruña Veleiako abokatua eta Euskaltzaindiako kidea.  
*Biteri, 19:00ean.*

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**La Reconquista**  
Ostirala: 22:00.

**Los del túnel**  
Igandea: 19:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

**Los del Túnel**  
Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30.  
Astlehena: 19:30, 22:00.

### USURBIL

#### URBIL

**Ballerina**  
Ostirala: 16:00, 18:00.  
Larunbata: 16:00, 17:15, 18:00.  
Igandea: 16:00, 17:15, 18:00.

**Batman: La lego**

### película

Ostirala: 15:50, 18:10.  
Larunbata: 15:50, 18:10.  
Igandea: 15:50, 18:10.

### Cincuenta sombras más oscuras

Ostirala: 16:25, 19:10, 22:00, 00:45.  
Larunbata: 16:25, 19:10, 22:00, 00:45.  
Igandea: 16:25, 19:10, 22:00.

### Es por tu bien

Ostirala: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.  
Larunbata: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.  
Igandea: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.

### Fences

Ostirala: 16:05, 20:00, 21:45, 00:30.  
Larunbata: 16:05, 20:00, 21:45, 00:30.  
Igandea: 16:05, 20:00, 21:45.

### Jackie

Ostirala: 20:30.  
Larunbata: 20:30.  
Igandea: 20:30.

### La Land

Ostirala: 16:30, 19:15.  
Larunbata: 19:15.  
Igandea: 19:15.

### La Gran Muralla

Ostirala: 15:50, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.  
Larunbata: 15:50, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.  
Igandea: 15:50, 18:10, 20:25, 22:40.

### Lion

Ostirala: 22:45.  
Larunbata: 22:45.  
Igandea: 22:45.

### Manchester frente al mar

Ostirala: 22:00.  
Larunbata: 22:00.  
Igandea: 22:00.

### Múltiple

Ostirala: 19:00, 22:45.  
Larunbata: 19:00, 22:45.  
Igandea: 19:00, 22:45.

### Resident Evil: Capítulo Final

Ostirala: 01:00.  
Larunbata: 01:00.

### T2: Trainspotting

Ostirala: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.  
Larunbata: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.  
Igandea: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.



## LABURPENA

### La Reconquista

**Zuz.:** Jonás Trueba. **Herr.:** Espainia.(2016). **Aktoreak:** Itsaso Arana, Francesco Carril, Aura Garrido, Candela Recio, Pablo Hoyos. **Iraupena:** 108 minutu.

## Laguntza ematearen kontraesanak

Manuela (Itsaso Arana) eta Olmo (Francesco Carril) dira protagonistak.

Bi gazteak elkartu egingo dira Madrilan, hamabost urte lehenago, neraberoan, amodio harreman sutsua bizi izan zutenean, elkarri agindu zioten bezala.

Hamabost urte atzera konpromiso erromantiko horretan oinarrituz, denboraren bila dabilen pelikula da 'La reconquista'.

Denboraren kontzientziari buruzkoa istorioa kontatzen da: galdutako denborari eta berreskuratutako denborari buruzkoa; gure iraganeko izaeraz gogoratzen duguna eta gogoratzen ez dugunari

buruzkoa; hitzei, keinuei eta sentimenduei buruzkoa; nolakoak garen erakusten digutelako, eta oraina, iragana eta geroa taxutzen dituztelako.

Bi gazteak asko aldatu dira denboraren poderioz, baina maitasuna berriz ere piztuko da bien artean, hori bai, kasu honetan harremana oso bestelakoa izango da. Abentura ezberdin batean murgilduko dira.

Zuzendariak maitasunaren kontzeptua berriz ere birplantan du film honetan hainbat zine adituk kritiketan jaso dutenez.

Publiko guztientzat egokia da.

# PLAZAN BAZAN



## Inauteriak

- Zenbat lore daude?  
 2  3  4  5  6
- Jende guztiaren artean, bi biki pare daude. Ze moztorro dute jantzita?
- Aurkitu elementu hauek:  

- Aurkitu beste hauek ere: Elur pampina, hontza, bandera pirata, kapelu mexikarra  

- Irudiko cowboy-aren eta honen artean 8 ezberdintasun daude. Ikusten al dituzu?

Hilabeteko azken Txintxarri aldizkarian haurrentzako denborapasak aurkituko dituzu: jolastu Maripurtzil eta Pellozirekin! Soluzioak eta jolas gehiago, [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) atarian. Sartu eta gozatu!

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

## ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



**7** hitzartutako  
ETXEBIZITZA BERRI  
LASARTEN

Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan

**2 LOGELA +12m<sup>2</sup>ko terraza**  
**199.000 €tik + BEZ**

**3 LOGELA +16m<sup>2</sup>ko terraza**  
**215.500 €tik + BEZ**

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN,  
100m<sup>2</sup>taraino

BISTA EZIN HOBEAK SANTA BARBARA ALDERA  
PERTSONALIZAZIO GUZTIAREKIN



**DENA BARNE**

Garajea, sukaldea, armairuak, pertsonalizazioa.

Izen emateko azken eguna: **APIRILAK 11**



**943 36 89 42**  
[www.zabaletaberri.es](http://www.zabaletaberri.es)

residencial  
**zabaleta** (berri)  
bizigunea